

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

KIROLAK


**Futbitoa, Ohorezko Ligan
lehenengo postua /8**

DEMAGOGOA

**Konstituzio
eguna /9**

LEINTZ GATZAGA

**Gabonetako
egitaraua prest /10**



Hiruatxek 10 urte

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 22
FRAILE J. Herriko plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 23
FRAILE J. Herriko plaza 10. 943 79 85 83

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Aretxagazeta	943 79 86 21
Fax	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte-Laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide Elkartea	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kiroletxea	943 71 26 28
Kultur-Etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi E.E.	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko M.E.	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun zentroa	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi Geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate

LARRIALDIAK	
SOS Delak	112
Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze-Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ofiati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:30

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak: 08:00

BASERRI AUZOETAN: ARIENTZA
Domekak: 12:30

GALARTZA
Domekak: 11:30

OHARRAK

MARGO ERAKUSKETA
Juan Jose Altuna Akizu margolariaren ikasleek euren lanak erakutsiko dituzte abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra bitartean, Murruxiko lokalean.

SANTO TOMAS EGUNA BASOTXON
Basotxoko bazkideek Santo Tomas eguna ospatuko dute abenduaren 22an, txorizo bokadiloak eta ardoa debalde edanez. Horrez gain 40 opari banatuko dituzte bazkideen artean.

OLENTZERO
Urtero legez, abenduaren 24an Olentzeroren etorrera ospatuko da. Hori dela-eta, goizeko 8:30ean baserriz baserri kantuan ibiltzeko elkartuko dira herriko gazteak. 10:30etan, berriz, guraso eta hurrek gabon abestiak kantatuko dituzte herriko kaleetan zehar. Azkenik, arratsaldeko 18:30ean Olentzero helduko da herrira.

POXPOLIN PARKEA
Haurrentzako Poxpolin parkeak abenduaren 26an zabalduko ditu bere ateak kiroletxean. Tailerrak, haurrentzako puzgarriak... egongo dira. Eguneko sarrera 500 pezetako izango da, bonoa berriz 1.000 pezetaren truke dago salgai.

LORAMENDIRENAGENDA

MIKEL ERRAZKINEN KONTZERTUA
Loramendi euskara elkartearen eskutik, Mikel Errazkin musika-gileak kontzertua eskainiko du abenduaren 28an, gaueko 22:30ean Kurtzebarriko eskola aretoan. Ekitaldi honekin emango zaio amaiera udazken kulturalako egitarauari.

ORAINDELA...

Gabonetako
"Peña Zubi"
futbol
txapelketa

Andoni Zubizarreta Aretxabaletako atezainaren omenez hasi zen 1985. urtean "Peña Zubi" izeneko txapelketa jokatzeko. Abenduaren 23an hasten da gutxi gorabehera futbol txapelketa, eta urtarril hasieran amaitzen da. Duela lau bat urte Jose Javier Barquerok banatu zituen sariak.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Miaztu"


Miazkatu, lamikatu.
-Beixak eskua miaztu dotsa umiai.



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Irati Gomez
18an. Berandu bada ere zorionak etxekoan partetik.



ARETXABALETA
Jon Gonzalo
18an, 2 urte. Urte askotaraki. Gurasoak eta Goraka.



ARETXABALETA
Lore Etxeandia
21ean. Zorionak osaba eta izebaren partetik.



ARETXABALETA
Gorka Gonzalo
26an, 5 urte. Urte askotaraki. Gurasoak eta Goraka.



ARETXABALETA
Cristina Justel
30an 6 urte. Zorionak ondo-ondo pasatu eta muxu handi bat.



ARETXABALETA
Miren Etxeandia
31an. Zorionak osaba eta izebaren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia eta emaiouzu ezusteko ederra! Doan!
Durana, 11.

BABESLEA

Gabon zaoriontsuak pasau!!!

Foto
Urkiola
Argazkidenda
HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

- * ESTUDIOAK
- * EZKONTZAK
- * JAUNARTZEAK
- * ENMARKAZIOAK
- * DIGITAL LANAK
- * KAMARAK

Gabonetako eskaintza bereziak

URBALTZ
TABERNA

URBALTZ taberna

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia


IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea
Aretxabaleta
943 79 05 83

ATREBENTZIAEZPADA/ Loterixie erosten dozu? Diru asko gastetan dozu? Nun erosten dozu?




NEREA GARCIA
Langillie



FRANCISCO GARCIA
Erretiraue




NEKANE BARBERO
Langillie



JABIER FERNANDEZ
Langillie



ARACELI HERRAN
Langillie



PELLO OKINA
Langillie

Bai, urte danien jokaketan dot numero bat, Gabonetan, barrez, gehixau. Hori bai, diru larrei ez, biher beste. Aurten Madrileko, Bilboko, eta beste leku batzuetako numeruek dauket.

Gutxi jokaketan dot, aurten be bi mila pezeta besteik ez dittut gastau. Oin arte ez jat ezer tokau, baiñe aurten tokauko jaten esperantza apurren bat badauket, bestela ez nauke jokatu.

Bai, jokaketan dot baiñe gutxi ez jat sekule ezer tokau eta. Kanpotik ekarri izen dustie eta hemen be erosten dot. Hala eta be esperantzie ez da sekule galdu biher.

Bai, apur bat jokaketan dot, gehixen bat Gabonetako loterixan. Oin arte ez jat tokau baiñe sekule ez da galzten esperantzie. Aber aurtenguen zeozer ez bapada be toketan jaten.

Gabonetako eta Umien loterixan jokaketan dot, bixetan be apur bat. Kanpotik ekarritako numero batzuk eta hemen erositako beste batzuk dauket, baiñe sekule ez jat ezer tokau.

Ez naz loterixa zalie, eta aurten be ez naz numeroik erosten fan. Baten batek erregaletan badust edarto, baiñe ez dauket jokaketako ohitturaik eta ez dot hortan diruik gastetan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ARKUPEKO SABAIA Herriko plazan, arkupeko sabaia ez dago batere ondo. Poliki-poliki jausten ari da, eta lehengo udaltxearen eraikinaren inguruan dago, gainera, okerren. Eraikina botatzekotan dira eta inguruan ere laster ezin izango da egon, baina bitartean ume asko egoten da hantxe futboleak jolasean, bizikletan edo patinean. /MIRARI ALTUBE

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /4

Urteko azken osoko bilkura

Astehenean egin zen 2001eko azken osoko bilkura. Luis Errastik bete zituen, gainera, alkate lanak.

KIROLAK /6

Bigarren erregionala

Bigarren mailako erregionalak partidu bakar bat galdu barik bukatuko du liga domekan.

NIRE BIDAIA HURA /7

Aitor Bengoa

Australia aldean ibili da Aitor zortzi hilabetean. Han bizi izandako pasadizoak kontatuko ditu.

ASTEKODATUA

5.000

ALE BANATUKO DITUZTE BI HERRIETAN

Urkulu urtegiko hegazti akuatikoen gida liburuaren 5.000 ale banatuko dituzte Aretxabaleta eta Eskoriatza artean. Etxe guztietara banatu gura dituzte oraingo astean bertan liburuok.

BESTEKEESANA

“ Kirol elkarte gehienak nahiko egoera gogorra bizitzen ari dira. Gaur egun, elkarteetan lan

egiteko jendea bilatzea ez da batere erraza. Elkarte hauen egoeraren, boluntarioen eskuetan, lan egiteko jende faltan eta errekurtsio gutxirekin eta abarren aurrean erakundeok zein neurri edo zein jarrerara hartu beharko genukeen da topaketa honetako gaiaren arrazoia. Topaketa landuko diren gaiak hiru izango dira. Goizean, Gipuzkoako Diputazioko Gazteria Zerbitzuak egindako txosten bati buruz hitz egingo da, *Gazteriari buruzko txostena Gipuzkoa 2000* izenekoa. Bertan gaur egungo gazteriak zer nolako ohiturak, baloreak eta joerak dauzkan eta nola ikusten den kirola gazteen munduan aztertzen da.

ASIER MUJIKA
ARRASATE IRRATIA/01-12-12

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



*Astebukaera.
Ah ze poza!*

Joan dira dagoeneko beste bost egun lanean. Eta luze joan dira, gainera. Goizean goizetik arratsalde arte jo eta ke. Baina iritsi da, azkenean, ostirala. Aste bukaera preziatua. Bi egun eta erdi aurretik neurtzako.

Baina bi egun eta erdi zertarako? Eguraldia lagun bada, kirol apur bat egiteko, jakina; aste guztian ikusi ez ditudan lagunekin egoteko ere aukera aproposa; eta eguna ahalik eta gehien luzatuz taberna zuloetan ordu mordoak bat emateko, nola ez.

Egia esan, ingurugiroaz gozatu eta basoerdiak edateaz gain, gure herri honek ez ditu aukera askotxo eskaintzen. Beste ezer egin ahal izateko Gasteizera joan behar ote dut? Edo Bilbora? Edo eta Donostia-ra?

Seguru nago herri txiki batean ekintzak antolatzea ez dela gauza erraza. Azpiegitura falta nabarmena da. Dirurik ere ez dugu sobera herritarrok

gustuko genituzkeen ekintza kultural guztiak aurrera eramateko. Eta, gure aldizkari honen orrietan duela ez asko irakurri ahal izan dudana bezala, antolatzen diren ekintza batzuetan parterik ere hartzen ez dugula egia omen da.

Zer egin, beraz, egoera honi buelta emateko? Kalitatezko programak antolatu. Inguruko hiriburuetan eskaintzen diren lehiatu daitezkeenak. Modu profesionalean gestionatuak eta ganorazko azpiegitura eskainiak. Ez da gutxi.

Gakoa da herri txikiok gure bakardadean eta gure baliabide mugatuak kapaz ote garen honelako proiektuak aurrera eramateko. Edo, ostera, gure inguruko herriekin kolaboratu behar ote dugun guztiok komunean gauza anbiziosoak proiektatu eta hirien aisialdirako eskaintzarekin lehiatu ahal izateko.

Hala ez bada, ze erremedio, Gasteiz ez da horren urrutiko geratzen.

“Seguru nago herri txiki batean ekintzak antolatzea ez dela gauza erraza. Azpiegitura falta nabarmena da”

Aretxagazeta

Durana, 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Olentzero
traktorean

Hiru egun bakarrik gelditzen dira Olentzero gure artean izateko. Ohiko moduan menditik jaitsiko zaigu, baina aurten, gurdia behiek ekarri beharrean traktorean etorriko da. Lasai, ohiko moduan eskuzabal etorriko baita.

Beste batzuei Olentzero lehenago etorri zaie. Izan ere, Loyola irratia ematen duen 2002 ezkon-gaien saria herriko bikote bati egokitu zaio. **Jon Ander Larrinaga** eta **Alazne Urzelairi**. Zorionak bikote. Gutuna dena dela lagun batek bidali zien, **Iker Altunak**. Horrelakoak bai benetako lagunak.

Bukatzeko bihartik aurrera margo erakusketak izango da Durana kalean. Beste batzuen artean **Idoia Elexpururen** eta **Encarna Mendezen** margoak izango ditugu. Ia gozatu on bat hartzen dugun gabonei hasiera ona emateko.



Alkatearen ezin etorriaren aurrean, Luis Errasti alkateordeak egin zituen alkate lanak.

OSOKO BILKURA/ Mozio bat eta bi gai aztertu eta onartu zituzten

Urteko azken osoko bilkura
Luis Errastik zuzendu zuen

MIRARI ALTUBE

Aurtengo azken Gobernu batzordea eta osoko bilkura egin zituzten astelehenean Udaletxean. Alkatearen ezin etorriaren aurrean, Luis Errasti alkateorde eta Hirigintza zinegotziak zuzendu zituen biak. Hiru gai aztertu eta onartu zituzten bilkuran.

Mozio bat eta gai bi onartu zituzten joan den asteleheneko osoko bilkuran.

SEXU BEREKO BIKOTEEN ESKAERA

Debagoieneko beste herri batzuetan moduan, gayen, lesbianen eta transexualen elkarteek eskatu zuten izateko bikoteen erregistroan izena ematen duten sexu bereko bikoteek zeremonia bitar-

tez elkartzeko eskubidea izatea. Udaletxean egiten diren ezkontza zibilek dituzten baldintza berberak gura dituzte.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren eskaerari jarraituz, Udal Haur Eskolaren araudia aldatzea onartu zuten. Bukatzeko, Udalak Debagoieneko Industrialdean dituen akzio batzuk Arrasateko Udalari saltzea onartu zuen.

LABUR

Etxebizitzaren eta
garajearen aldeko
diru eskaintza

Udalak enkantera atera dituen etxebizitza eta garajea arautzen dituen oinarriak abenduaren 13ko GAOn agertzen dira. Urtarrilaren 8a bitartean egongo da diru eskaintza egiteko aukera. Etxea ikusteko egunak, bestalde, oraindik ez dituzte zehaztu.

Urkuluko hegaztien
gaineko liburua
kaleratuko dute


Udaleko Ingurumen Sailak eta Eskoriatzako Udalak, Ur Kontsortzioarekin batera, Urkulun bizi eta egoten diren hegaztien gaineko liburua kaleratuko dute datozen egunotan. Mikel Arroiabek marraztu ditu hegaztien irudi guztiak, eta liburua etxe-guztietan banatuko dute.

Balioak lantzen ibili
dira Kurtzebarri
eskolan

Urtero moduan, oraingo astean balioen inguruko hausnarketa egin dute Kurtzebarri eskolan. Ikasturte honetan "elkarbizitza-errespetua" balioa landu dute, eta aurrera eroandako ekintzen artean bertso bat landu dute. Eta orain, bertso hori ikusgai dago sarreran.

SADHANA YOGA ETA
PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia
(taldea eta indibiduala)




Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24
20550 ARETXABALETA
Tel.: 616 965 795

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64

GIZARTEA/ Hamar urteko ibilbidea laburbiltzen duen liburuxka kaleratuko du

Hamar urte bete ditu Hiruatx elkarteak

MIRARI ALTUBE

Hiruatx-ek, Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldeak, hamar urte bete ditu hile honetan. Hainbat proiektu eroan ditu aurrera tarte honetan munduko alderdirik ezkutuenetan. Datozen egunetan, guztia labur biltzen duen liburuxka kaleratuko du.

Ibilbide luzea bete du Hiruatx-ek, hamar urte, hain zuzen. Tarte horretan hainbat ekintza eta proiektu gauzatu ditu munduko bazterrik ezkutuenetan, betiere, aretxabaletarren laguntzarekin.

PROIEKTUAK BULTZATZEN

Hiruatx garapenerako gobernuz kanpoko erakundea da. Erakundearen helburua da behartsu bihurtutako herrien egoeraz jabe-araztea eta garapenerako lankidetzatza proiektuak aurrera eroatea. Dirua soilik bidaltzea baino, Hiruatx-ek gurago du Hirugarren Munduko elkarteekin lankidetzan proiektuak burutzea.

Horrela, zazpi proiektu gauzatu ditu, bai Afrikan, bai Asian, bai Hego eta Ertamerikan, eta guz-

Zazpi proiektu gauzatu ditu, bai Afrikan, bai Asia, bai Hego eta Ertamerikan

Egun, Ekuadorren Amazonasko indigena komunitatearekin dabil lanean

tira, 76 milioi baino gehiago batu ditu, aretxabaletarren eta Debagoienerako hainbat elkarteren laguntzarekin. Udalaren laguntza ere urtetik urtera handituz joan da eta legealdi honetan aurrekontu orokorraren %0,7 emateko konpromisoa hartu du. Era berean, ingurunearen kontzientziazioan egiten du lan Hiruatx-

ek, aldaketa kulturalak eragiteko gai izango den egitura soziala eraikitzeko ahaleginean.

PROIEKTUAK BULTZATZEN

Indiako Unai-I proiektuarekin hasi zuen ibilbidea Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldeak. Lau urteko proiektua landu zuen orduan, eta 19 milioi batu zituen. 1999an, berriz, hara jo zuen Unai-II egiteko, eta 14 milioi batu dituzte aurten bukatu den proiektuan. Tartean, Zaireko Bukavu herri-rako 15 milioi batu zituzten, Kolonbiako San Clementerako zortzi, eta Nikaraguako Condegarako lau. Horiez gain, Condegan bertan, Mitch urakanak eragindako kalteei aurre egin zien, eta Mozambikera ere bidali zen laguntzatxo bat orain urtebete izandako uholdeei aurre egiteko. Gaur egun, Ekuadorren Amazonasko indigena komunitatearekin dabil lanean.

Hamargarren urteurren hau ospatzeko elkartearen ibilbidea laburbiltzen duen liburuxka kaleratuko du datozen egunetan. Era berean, hamar urte horietan lagundutako bazkide guztiei eskerak eman gura dizkie.

TXUTXUMUTXUA



Kontzertu bikaina Akordeoi Orkestrak

Kontzertu bikaina eman zien herritarrei Akordeoi Orkestrak zapatuan. Lehenengo zatian Unai Mendikute akordeoilari gazteak Arrasateko Gipuzkoako Txapelketan jotako lanak eskaini zituen, eta gero, akordeoilari gaztetxoek eta nagusiek bat eginda jo zuten. Bigarren zatian nagusiak bakarrik ibili ziren, bai dotore ibili ere. Ez daukagu inora joan beharrik akordeoiaz gozatu gura izanez gero; ea herrian ditugunak baloratzten hasten garen. /M.A.

URTEKO KUOTARIK EZ

PREZIO IGOERARIK EZ

KALITATE GORENEKO MATERIALEA

ESPERIENTZIA HAUNDIKO MONITOREAK

ORDUTEGI JARRAIA 8:00 21:00

OSASUNA ETA GABON ZORIONTSUAK

AZTERKETA FISIKO-MEDIKUAK

JARRAIEN PERTSONALIZATUA

Zainduz

• ILARGI PLAZA 6 BEHEA •

• TEL.: 943 712 792 •

• MUG.: 658 758 012 •

• 20550 ARETXABALETA

• ZAINDUZ@EUSKALNET.NET

FUTBOLA

Bigarren erregionaleko taldeak ezin hobeto bukatu du lehenengo fasea

Ez dute partidu bakar bat ere galdu Nedzaden mutilek

MIRARI ALTUBE

Oraingo domekan jokatuko duten partidu lehenengo faseko azkena izango da. Orain arte ez dute partidurik galdu eta lehenengo postuan bukatu du. Datorren urtean bigarren faseari ekingo dio, lehenengo mailara igotzeko ahaleginari, hain zuzen.

Bigarren erregionaleko taldeek asteburuan bukatuko dute liga lehenengo zatia. Aretxabale-tarrak pozik egoteko moduan daude, ez dute eta partidurik galdu orain arte.



Bigarren erregionaleko jokalariek pozik egoteko moduan daude

LANA ETA DIZIPLINA

Nedzaden esanetan, ez dago sekreturik, gauzak ondo eginez gero, berez ateratzen dira eta. Astean hiru egunean izaten dute entrenamendua, eta jokalariek guztiak saiatzen dira bertan egoten. Hortaz, ez da zorte kontua izan bakarrik: "Jokalariek finak ditut, lan egiten dakitenak eta diziplinatua, eta horrek emaitzak eman ditu", dio Nedzadek.

Ligako lehenengo zatian lau talde egon dira eta Aretxabale-

tarrek euren taldeko lehenengo postuan bukatuko dute, ezustekorik ez bada gertatzen, behintzat. Ligako bigarren zatia urtarrilaren 13an hasiko dute. Liga honek lau taldeetako lau onenak sartuko dira eta lehenengo erregionalerako igotzeko norgehiagoka jokatuko dute hamasei taldeek. "Gure helburua lehenengo maila

lora igotzea da, jakina, baina badakigu norgehiagoka gogorra izango dela, azken baten, bigarren mailako talderik onenak ibiliko gara eta elkarren aurka", dio Nedzadek.

Gabonak lasai pasatu ostean, gogor ekin beharko diote lanari jokalariek; dena dela, orain arte egindakoa ere ez da gutxi.

FUTBOLA

Urrezko intsignia ezarriko dio UDAk Jonan Larrinagari abenduaren 30ean

Abenduaren 30ean preferenteko taldeak Azkoitiko Lagun Ona taldearen aurka jokatuko duen partiduan, Jonan Larrinaga jokalaririk ohiari omenaldia egingo dio UDAk. Urrezko intsignia ezarriko diote; izan ere, hamar urte pasatxo egin ditu preferenteko taldean. Jonanek, lesio baten ondorioz, futboleko jokatzeari utzi behar izan zion iaz.

PILOTA

Oraingo aste bukaeran amaituko da Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa

Bihar, zapatua, emango diote bukaera herriko pilotarietako Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketari. Ez dute zorte handirik izan eta dagoeneko ez daukate ezer egiterik. Errasti anaiak dira Eusko Liga jokatzeke aukeraren bat edo beste izan dezaketenak. Horretarako, azken partidua irabazi eta 5. postuan bukatu behar du txapelketa; eta, hala ere, ikusi egin behar sartzen diren edo ez.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

UDA-Zarautz

Preferentea.

Domeka. Zarautz.

UDA-Eibartarrak

Bigarren mailako erregionala.

Domeka. 16:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. (1)-Illunpe

Gazteak.

Aretxab. (2)-Beloki

Aretxab. (1)-Bergara

Seniorrak.

Zapatua. 18:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Beti Ona 4 UDA 1

Preferentea.

UDA 3 Cruces 0

Gazteen Euskal Liga,

Amaiak bat 0 UDA 1

Bigarren mailako erregionala.

UDA 1 Arrasate 1

Bigarren mailako gazteak.

UDA 13 Intxurre 2

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA 1 A. Ondarroa 0

Bergara 0 UDA 0

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Illunpe 8 Aretxab. (1) 22

Aretxab. (2) 12 Eibar 22

Gazteak.

Bergara 22 Aretxab. (2) 12

Beloki (Zumarr.)-Aretxab. (1)

Seniorrak.

Euskararentzat bidea ez da erraza eta leuna; hala eta guztiz argituko da noizbait bere etorkizuna.

Hizkuntza dugu Herriak duen benetako ondasuna; Urte Berriak dakarkiola geureari osasuna

Nafaroa 2-4. Aretxabaleta
Tel. 943 79 21 68

Intxaurtxueta 9. Eskoriatza
karmele.leintz@terra.es
leintzeuskaltegia@terra.es

Leintz Udal Euskaltegia





AITZORROTZ

elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika



Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Aretz

taberna

- .Gosariak
- .Pintxoak
- .Plater konbinatuak
- .Otartekoak
- .Pizzak
- .Hanburgesak
- .Sandwichak
- .Oilasko erreak
- .Kazuelatxoak

Zorionak denoi!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behe Tel.: 943 79 20 14 ARETXABALETA




Opariak jasotzea zoragarria da Eta egitea, erraz-erraza!



Angel Schlessler femme kolonia

PAGALDAI OPARIAK
Durana 33. 943 79 10 14



Adidas erlojua

MARTIN ERLOJU DENDA
Mitarte 16. 943 79 01 72



Gizonezkoen jaka

ASENSIO JANTZI DENDA
Mitarte 12. 943 79 10 72



Emakumezkoen jaka

ASENSIO JANTZI DENDA
Mitarte 12. 943 79 10 72



Algora Portzelana artistikoa

PAGALDAI OPARIAK
Durana 33. 943 79 10 14



Viceroy urrezko erlojua

MARTIN ERLOJU DENDA
Mitarte 16. 943 79 01 72



ka mutikoendako arropa

8. 943 79 10 96



Ezpainetako kolorea

GEMES EDERTZE ARETOA
Durana 40. 943 79 99 18



Bitxiak

MIREN ZURIÑE BITXITEGIA
Otalora 4. 943 77 13 57



akumezkoen jertsea

KA JANTZI DENDA
a 36. 943 77 16 10



Emakumezkoen berokia eta poltsa

ZARE JANTZI DENDA
Santakurtz 24. 943 77 07 92



Emakumezkoen barruko erropa

LEINTZ ROSI
Errekabarren 3. 943 79 78 63



akumezkoen jaka

KA JANTZI DENDA
a 36. 943 77 16 10



Nordikak

ZUBIA OINETAKOAK
Mitarte 14. 943 79 16 00



Zippo poltsa

LIE LURRINDEGIA
Mitarte 18. 943 79 38 59

LEIBAR KARRINDEGIAK Mitarte, 1 • Tf. 943 771379 Loramendi, 1 • Tf. 943 791833	ERBASTI Kioskoa Durana, 19 • Tf. 943 799876
Maritxu Mertzeria Araba Ibilbidea, 24 Tf. 943 79 23 53	GEMES EDERTZE ARETOA Durana, 40 Tf. 943 799918
Jon HARATEGIA Loramendi, 1 • Tf. 943 79 71 69	Hargi plaza 6 Tel: 658 758 012 Zainduz OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA CENTRO DE SALUD Y FITNESS
MartiW PELOJERIA • BIXKITEGIA Mitarte, 16 • Tf. 943 79 01 72	OROGERIA MERTZERIA LEINTZ Errekabarren, 3 • Tf. (dendakoa) 943 79 78 63 (etxakoa) 943 79 06 84
FARMA BIZI Loramendi, 8 Tfnoa-Faxa: 943 771818	IRIARTE Umeen denda eta lentzeria Durana, 8 • Tfnoa: 943 79 10 96
MIREN & ZURINE BITXIKIEN DISEINUA OTALORA KALEA, ELIZA AURREALDEAN Tfnoa: 943 771357	TXILARRA ELIKADURA BEREZIA Durana, 35 Tf.: 943 79 10 15 Loramendi, 9 Tf.: 943 79 44 28
Harategia Urdaitegia Fruitategia IMANOL JANARI DENDA Gorbea kalea • Tfnoa: 943 79 05 83	Irudi ELAPAINKETA PELUQUERIA MIXTA Erreka Barren, 20 b. • Tf. 943 798090
ALBOKA Gazte moda Durana, 36 • Tfno: 943 771610	HERRASTI AKEITA ETXEA CAFES Arular kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83
ELECTRONICA KITZORROTZ • Automatismos eta mantenimendua • Instalazio elektrikoak • Askrara, antena kolektiboak eta parabolikak • Telebista-audio-bideo salmenta eta konponketa • Satelite digitala Otalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610	Oinetakoak Poltsoak zapatak gerrikoak Zubia Mitarte, 14 943 79 16 00
NERIAN LORADENDA Tfno.: 943 79 70 66	PAPERDENDA IBER LOTERIA Otalora, 2 Tfnoa: 943 79 79 24



**Errege eguneko
loteria
oparitzen dugu!**

**GABON
ZORIONTSUAK
IGARO
DITZAZUELA
DENOK!**



ZAKA - artegintza - artesanía. CENTRO COMERCIAL LEZAMA, 14 TFNO. 943 770792	IBARRA ESTANKOAK PRENTSA IKASMATERIALA Bizkaia, 3 • Tf. 943 792377
CONFECCIONES ASENSIO JANTZIDENDA Mitarte, 12 • Tfno.: 943 79 10 72	Lasai Masaje terapeutikoa Postura azterketa eta egokitzeko diplomak Lezama merkatal zentrua Santa Kurtz, 24 • Tf. 943 770434
Fruita eta txarkuterian espezialitatea Angelines AUTOZERBITZUA Mitarte, 16 • Tfno.: 943 79 61 42	JOSU Urdaitegi Gozategi Kroasante Janari prestatua Mitarte, 1 • Tf. 943 77 03 08
ARETXABALETAK Fontanería ITURGINTZA Durana, 16 • Tfno.: 943 79 17 53	Larad Peluquería y Salón de belleza • LUZATZEAK • MIKROPIGMENTAZIOAK • DEPILAZIO ELEKTRIKOA Loramendi, 11 • Tf. 943 799079
LORAMENDI, 10 TEL: 943 77 01 26 20550 ARETXABALETAK	Etxabe harategia Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61
Jauregi okindegia Otalora, 10 Tf. 943 79 57 47	REGI ONDO OPTIKA Loramendi, 10 • Tf. 943 79 98 21
ZENIZ liburudenda Herriko Plaza, 10 Tf. 943 79 75 53	Gertu Jakien elaborazioa eta salmenta Mitarte, 10 • Tf. 943 770612
XUME Teladenda Errekabarren, 14 • Tf. 943 79 11 19	HAURRAK Umeendako moda Lezama merkatal zentrua, 15 Tf. 943 77 14 86
MARI KARMEN oinetakoak KONPONKETAK Errekabarren • Tf. 943 79 59 85	Fruiteria Errekabarren 943 799643 Fruitadenda
EUSKO JAURLARITZA	GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA	DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO



Jai zoriontsuaketa urte berri on

Lauxitta taberna

ORDUTEGIA: 10:00etatik 22:00etara / Lauxitta kalea, 4 / 20550 ARETXABALETAK / 943 79 29 36

ARETXABALETARRAKMUNDUAN

ELIZABETH TROJAOLA

21 URTE / IKASLEA / GIRONAN

“Hutsetik bizimodu berri bat hasteko aukera ematen du kanpora joateak”

A.L

O rain dela urtebete joan zen Elizabeth Trojaola Gironako hiriburura. Aspalditik Ingurumen Zientzia ikasteko gogoarekin zebilen, eta Katalunian aurkitu zuen horretarako aukera. Egia esan, etxe inguruan ere gustura geldituko zen Elizabeth, baina Euskal Herrian ez zegoen Ingurumen Zientziak egiteko unibertsitatearik. Hala ere, filosofiarekin hartu zuen etxebizitzaren aldaketa eta bizimodu berria hasteko asmoarekin alde egin zuen Aretxabaletatik. “Hutsetik bizimodu berri bat hasteko aukera ematen du herritik kanpora denboraldi batez joateak”.

Elizabethek ikasle bizimodua darama Gironan. Aste barruan, bederen, ez du aparteko ezer egiten: ikasi eta etxean egon; asteburuetan, aldiz, beste ekintza

batzuk bilatzen saia-



tzen da. “Ezberdintasun handiena asteburuetan dago, nire ustez, ez zara etxera bueltatzen eta beste modu baten antolatu behar da norbera”. Elizabethek hangoekin ekintzak egiten, inguruak bisitatzen eta mendira joaten saiatzen da. Ez

“Orokorrean, herri osoa igartzen dut faltan: lagunak, familia poteoa...”

da, ez, geldi egotekoa eta bizimodu berrira ondo ohitu da. “Azken baten, bertan daudenengan aurkitu behar da betiko familiak eta betiko lagunak eman ohi duten goxotasuna”.

Hala ere, dena ez da alaitasuna, herrimina ere izaten dut. “Orokorrean, herri osoa igartzen dut faltan, baina, gehienbat, lagunak eta poteatzeko ohitura; hemen ez dago horrelakorik!”.

Elizabeth Trojaolak, zelan ez, Aretxabaletan pasatuko ditu Gabon egunak. Lagunak ikusi, senitartekoei denbora luzeagoa pasatu, eta nahi duen guttia egiteko aukera izango du, eta 2002. urtea, behintzat, herrian hasiko du aretxabaletarrak.

HURRETIK



Eva Agirre

Kurtzebarriko zuzendari eta irakasle

Eva Agirre Kurtzebarriko irakasle da. Kasualidadez heldu zan ofiziora 20 urte dala. Lana estresante eta gogorra dala onartu arren, ardura handixague hartu eta zuzendari be bada.

Zelan, ba, irakasle?

Kasualidadez, Irakasle Eskola etxetik gertu euen, eta besterik barik han hasi nitzen ikasten.

Eta zenbat urte irakasle lanetan?

Ixe akordau be ez naz egitten, 20 bat urte, behintzet, bai.

Eta zuzendari?

Oin dala bi urte hasi nitzen Haur Hezkuntzako eta LHko zuzendari lanetan.

Zu zeu ze moduzko ikasle zitzen?

Nahiko ona.

Zure ikasle garaittik ze da gehixen gogoratzen dozuna?

Mojetatik oroitzen onik ez, baiñe marianistetan oso zoriontsu izen nitzen.

Gauzak asko aldatu die ordutik hona?

Bai, batez be, irakasle eta ikaslien arteko harremanak oin askoz be gertukaguet die, beste konfiantza bat dago.

Maittasunez gogoratzen dozun irakasleren bat?

Pello Mendizabal, marianestetakua.

Ze biher da irakasle ona izeteko?

Pazientzia haundixe, batez be.

Zuk zein zigor jartzen dittuzu?

Oin, zigor gutxi jarten die; ikasliekin hausnarketa egitten dou gehixago.

Zelakuek die gaurko umiek?

Gehixenek ez dakixe ze gure dauen, galdu xamar topetan dittut. Horretaz gain, gurasuen babes haundixe daukie.

Etxien ama ala irakasle zara?

Nire seme-alabek irakasle nazela esaten dustie, gatxa da bereiztie .

Zeñi jarriko zeuskio nota txarra?

Aznarrei, gorroto dot, ez dau ondo jokatetan.

AMAGOIA LASAGABASTER

NIREBIDAIAHURA/ Aitor Bengoa

Australiara / 2001eko otsailean

Aspalditik pentsatua zeukan Aitor Bengoak Australiara bidaia egitea, eta ez da arraroa. Izan ere, ez da izan oportretan hamar egunetarako egindako bidaia, Aitorrek zortzi bat hilabete eman ditu Australian. Bidaia luzearen helburuetako bat hango hizkuntza ikastea zen, baina ez helburu bakarra. Aitorrek Australiako natura gertu-gertutik ikusi gura zuen. “Australiak sekulako aberastasuna dauka, hango natura guztiz desberdina da”

Helburuak helburu, Aitorrek uharre izugarri hori ondo ezagutzeko aukera izan zuen. Jende desberdinarekin topo egin, milaka toki ikusi eta hango kultura ezagutzen eman ditu egunak. Eta gehien, duda barik, hango paisaiak gustatu zaizkio, baita ur azpikoak ere. “Urpekaritza egin genuen eta esan beharra daukat Australiako paisaiarik ederrenak ur azpian ikusi nituela; kirol hori gustatzen zaionari biziki gomendatuko nioke hara joatea”. Aitorren esanetan, hantxe daude munduko koralezko arreziferik handi eta politenak, eta esperientzia horrekin bere bizitzako ametsa bete du, gainera.

Gustatu ez zaiona, berriz, uharrearen kultura izan da. “Australia oso herrialde berria da, 200 bat urte dira hara ingelesak joan zirela; horregatik, kultura aldetik pobreak izateaz gain, janari lasterra eta horrelakoak bakarrik dituzte barneratuta”. Jendeari dago-kionez, hango berezko bizilagunen gainean berba egin digu Aitorrek. “Aborigen gehienak erreserbetan bizi dira, eta gainerakoak hiri handietan ikus daitezke, mozkortuta; arazo ugari dituzte alkoholarekin”.

Baina Aitorrek argi dauka Australiara egindako bidaiarekin zer ikasi duen. Aitorren esanetan, bere burua hobeto ezagutzeko balio izan dio esperientzia.

A.L



Aitor Bengoa, termitategi izugarri baten ondoan, lagun batzuekin.



Sail eta etxebizitzaren salmenta Eskoriatzan

Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala, 27 behea-ekz. ARRASATE

Udalatx InmobiliariA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

ESKORIATZA ERRETEGIA
MENDIOLA
Tfno 714345

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 21a / 61. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 20550 ARETXABALETAKO • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Arabako Ohorezko Ligatik Euskal Ligara pausoa egitea helburu

AINTZANE GARDOKI

Orain dela hiru urte hasi ziren Arabako Ohorezko Ligan jokatzen herriko mutilak. Aurreko zapatuan bigarren postuan dagoen Alegriari 4 eta 2 irabazi ondoren, lehen postuan jarraitu eta Euskal Ligara pausoa egitea dute helburu.

Zapatu arratsaldean partidu gogorra zeukaten lehen taldeko futbito mutilek. Saillkapeneko 2. postuan dagoen Alegriaren kontra jokatu zuten, eta 4 eta 2 irabazi zuten

EUSKAL LIGA HELBURU

Guztira, 19tik 24 urte bitarteko 11 gaztek osatzen dute taldea. Gehienak eskoriatzarrak badira, badaude arrasatear bat eta aretxabaletar bat ere. Eskoriatzako taldea da, gainera, Euskal Herriko beste talde guztien artean gazteena. "Beste taldeekin alderatuz oso gaztea da gure taldea, eta duela hiru urte Euskal Ligatik jaitsi ginenean, adinak eta esperientzia ezak eragina izan zuten", azaltzen du Manolo Muñoz Eskoriatza



Alegriari lau eta bi irabazi zioten aurreko zapatuan.

KEko presidentek. Iñaki Corralen ardurapean, astean bitan entrenatzen dira, "eta serio, gainera, horren lekukorik argiena

ditugun emaitzetan ikusten baita. Orain gertu gaude, lehen ez bezala, Euskal Ligan aritzeko. Hori dugu helburu", dio Muñoz

zek. 29an eta 30ean Euskadiko Futbito Txapelketa jokatuko da, eta bi eskoriatzarrek hartuko dute parte Arabako selekzioarekin.

LABUR

Sorospen ikastaroa bukatu zen aurreko asteburuan

Joan den urrian hasi zuten 14 gaztek sorospen ikastaroa, eta ia ehun ordu egin ondoren, zapatuan egin zituzten ikastaroa gainditzeko azkeneko frogak.

Arduradunen esanetan, froga gogorrek gainditu behar izan dituzte gazteok, eta laster jakingo dute zeintzuk gainditu dituzten frogak, eta zeintzuk izango diren, ondorioz, aurrerantzean sorosleak.

Jostailu erakusketa arrakastatsua

Jostailu eta euskarazko materiala izan zen erakusgai joan den egunetik domekara bitartean Kultur Etxean. Jende ugari, ume eta nagusi, hurreratu zen. Antolatzaileek, oro har, balorazio positiboa egin badute ere, azaldu dute ludoteka kutsua ere izan duela erakusketak, eta datorren urterako hori hobetu beharra azpimarratu dute. Arrakastarik handiena CDeK izan dute.



Jaki gozoak prestatzeko ikastaroa

Amuska-k antolatuta Eskoriatzako eta Aretxabaleako 20 emakume batu dira astean, Maria Jesus Miguelen eskutik.

Ohitura bihurtu da dagoeneko Gabon bezperatan sukaldaritza ikastaroa egitea. Astelehenean hasi eta hiru egunez batu dira Olazarren sukaldarian. Barazki frijituak, espagetiak txipiroiekin edo kafezko budina zelan egin ikasi ahal izan dute, besteak beste. Jakiak prestatu eta gero, bapo gozatu dute egindakoak!

DEMAGOGOAK

Konstituzioaz buruko minak

Konstituzioan, jai, bai!

Jai? Ez!

Konstituzioaren eguneko jai delako eta, gureko nuke nik ere gaiaz hitz bi goienkariaritzea, albokoaren inspirazioari itzala egiteko asmoz. Izan ere, niri neuri, behintzat, elkarren kontrakoak iruditzen zaizkit "jai egitea" eta "inposatu" berbak, nabarmenagoa kontzeptu-frikzioa hemen hitz biak elkarren ondoan daudelako.

Inoiz behartu naute lantokian jai hartzera, egia da. Egia da, baita, lan-egutegien egitekoa sarri baldintzapean iristean, zailagoa dela libreki erabakitzea.

Zentzu horretan, agian, hainbat langilek jai hartzera behartuta ikus dezake bere burua egun jakin batzuetan, eta ez berak gustukoaren lukeenetan; jai egite inposatu batera zigorturik dagokeela, alegia. Baina, ez dut uste langileria bere eskubideetan zapalduta sentitu denik Espainiako Gobernua jai hau inposatu diolako, besteak beste,

inposizioa jai hartzearena izan delako, ez ospatzearena, eta sekulako zubi dotorea atera zaigulako.

Are gehiago, gurago nuke hartzen ditugunez gain, beste horrenbeste ere inposatuko balizkidade, berdin zait gobernua edo susumkordak, hilaren bukaerakoan murrizketarik sumatuko ez banu, txintik atera barik guztiak hartuko nituzke-eta.

"Azken finean jai egunetakoa ez baita ospatze kontua, disfrutatze kontua baizik"

Azken finean, jai egunetakoa ez baita ospatze kontua, disfrutatze kontua baizik. Baina, ez pentsa aitzakiaren disfrutatzeaz nabilenik, ez -tarteke darabilgun Konstituzioaren aitzakia,

esaterako-, ezpada lan-etenarenaz.

Eta zenbat eta lan-eten, jai egun eta antzerako abar gehiago, orduan eta poziago, bai ni, baita euskal zein mundial langileria ere. Horren dudarik bat ere ez eduki.

JONE

Berriro ere sartu digute! Hala-por-ahí denok jai hartzera. Egiteko hoberik ez balego bezala. Eta gu txorimaloak letxe, amen esan eta pozik asko konstituzio santua ospatzera. Autoa tramankuluz bete eta pista. Pirinioetara, Landetara, Errioxara... Ez al dugu gogoratzen duela hainbat urte jo ta ke aritu ginela batzuk konstituzioaren kontra zuzen zuzenean eta besteok paso egiten, bozketa-ri berari ere uko eginez?. Nolatan, bada, egiten dugu alde den-denok koadrila alegeran egun hori ospatzera? Mixterio.

Zorionez ez gara denok bizimodu erraz eta zentzubakoen maitale. Egon badaude beraien portaera adoretzu, tinko, ausart eta koherentearekin egutegiak trufa egiten digun egunetan pertsona oso-osoak direla erakusten digutenak. Benetako demokrazian oinarritutako egutegiaren alde daudenak. Gure egun

seinalatuak zeintzuk diren erakutsiko digutenak.

Izan ere, herrialde-herri-pays-country laiko baten bizi bagara, ze integrisimo klasek bultzatzen gaitu Epifania, San Jose, Aste Santua (aste oso bat!), San Juan, San Pedro, San Millan, millaizeneko Amabirjina, diren eta ez diren Santuoren egunak jai eguntzat jotzera?

"Zorionez ez gara denok bizimodu erreza eta zentzubakoen maitale"

Eta Gabonak? Eta ezin ahaztu domeka bera Jaunaren eguna dela, eta zapatua juduen sabbatetik datorrela. Badugu bai lana egutegi demokratikoa osatzen.

Ez dakidana zera da, jai egunak zentzuk izan beharko diren botazio bidez

erabaki behar dugun edo betikoek por-mis-cojones martxan jarriko dituzten. Dena den, eta egia esateko, jai egun kopurua mantendu edo ugaltu egiten badute, bizimodu erraz eta zentzubakoen maitaleok ere alde izango gaituzte.

JOJO

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal Bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kiroletxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki?	943 71 40 77
Luis Eceiza	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxia	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde Ospital. (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
Pesa (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

IPUIN KONTAKETA
Hilaren 21ean, helduei zuzendutako ipuinak kontatuko ditu Koldo Amestoyk Jose Arana ikastolan, gaueko 22:00etan.

GABONETAKO KONTZERTUA
Abenduaren 23an, meza ostean Musika Eskolako Bandak Gabonetako Kontzertua eskainiko du San Pedro parrokan.

OLENTZERO ETA PARKEA
Hilaren 24an, Gabon kantu, trikiti eta gaztaina erre janarekin batera Olentzero izango da herrian. 26tik 29ra, kiroldegian, Gabonetako Parkea egongo da.

AXTROKIRENAGENDA

BAZKIDE KANPAINAREN ZOZKETA
Nekazal etxe baten asteburua zozketatuko du bere bazkideen artean Axtrokik 24an, iluntzean, herriko plazan. Bazkide izan nahi ezkerro, garaiz zabilzate.



Sei artista txikiren lanak

Ane Benito, Leire Zurutuza, Anaitz Álvarez, Maite Santamaria, Maialen Lete eta Miriam Isasmendi izan dira aurtengo Gabonak marrazki lehiaketako irabazleak.

Kultura etxeak antolatutako lehiaketan Eskoriatzan eta Gatzagan bizi diren sei eta hamabi urte bitarteko ume guztiak hartu ahal izan dute parte, eta asko izan dira parte hartzaileak. Lan guztiak kiroldegian izango dira erakusgai abenduaren 26, 27, 28 eta 29an.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

TOKI ALAI
TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure Zerbitzura



- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek.
ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92.
Sakelakoa: 605 772 769

Jaiotza eginez agur egin zaie aurtengo Gabonei

AINTZANE GARDOKI

Joan den zapatuan, herritar batzuk jaiotza egiten ibili ziren Markole plazan. Giro hotza izan bazen ere, txapelak, tapaukak eta txamarrak jantzita, eta Olentzeroren presentziarekin, jaiotza osatu zuten. Figurak guraso eta umeen arteko lankidetzak egin ditu posible.

GURELeko kideak, umeak eta gurasoak zapatu eguerdian hasi ziren jaiotza egiten. Guraso batzuk, astean barrena, figuren aurpegiak egin zituzten *maché* paperarekin, eta horren ondoren, herriko umeek gurasoek egindakoa margotu zuten ludotekan. Astoa, behia, eta familia oso-osoa daude pinu-enbor eta pinu-abarrekin egindako aterpean. Haien ondoan, guztia zaintzen, Olentzero.

GABONETAN EKINTZA UGARI

Jaiotza eginez egin nahi izan zaio Gabonei ongietorria. Olentzeroak ere nonahi ikus daitezke aurtun; izan ere, bat baino gehiago ari dira zakua opariz beteta dutela leihoetatik etxeetara sartu guran. Eta jaiotza eta Olentzero-


rekin, GURELek umeendako Gabonetako egitarau sendoa antolatu du. Olentzero egunari trikiti eta pandero soinuekin emango zaio hasiera. Egun osoan Gatzagako baserri eta kaleetan ibiliko dira umeak kantari. Biharamunean, Eskoriatzako Gabonetako parkera egingo dute irteera eta 27an, Aretxabaletako parkera.

28an, arratsaldean diapositibak izango dituzte ludotekan, eta egubakoitzean, antzerkia izango dute ikusgai. Urte berria hasteko, Gasteizko izotz jauregira egun baten eta zinemara beste baten joango dira. Ipuin kontaketaekin eta Aretxabaletan Errege eguneko kabalgatarekin bukatuko da aurtengo egitaraua. Ondo pasatu!



Hotz egin bazuen ere, gogotik ibili ziren lanean gatzagarrak.


AINTZANE GARDOKI



Giro hotzari txokolate beroaz aurre

Hotzari aurre egiteko asmoz, herriko pilotariek sua egin eta txokolate beroa banatu zuten ikusleen artean. "Hotz honekin, bestela, ez da inor animatuko frontoian egoten, eta hau berotu beharra dago!", esan ziguten eskuak prestatzen ari zirela pilotariek. Eta jende ugari batu zen; izan ere, oso partidu gogorak zeuden jokoan. Emaitzak ondokoak izan ziren: Unai-Beloki 22 Jon-Aritz 18; Iñusti-Patas 22, Matxain-Asier 20; Goio-Oñate 22, Salva-Joxerra 3; Artabilla-Jon 22, Mikel-Txarrantxa 12; Iñaki-Agarre 22, Ina-Javier 15.

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE



Okindegia · Gozotegia

Aretxabaleta

Okindegia · Gozotegia

Aretxabaleta

Okindegia

Aretxabal

Okindegia · Gozotegia

Aretxabaleta

Okindegia · Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 • 943 77 17 19

Basabe, 2 • 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

**2002 urte gozo-gozoa
opa dizuegu!**

Okidegia

Aretxabal


Okidegia

Okindegia

Aretxabaleta

Okindegia · Gozotegia

Aretxabaleta



Elur
usainean
arnasberritu



 **OKENDO**
KIROLAK

Gabon zoriontsuak izan!

Maalako errabala 13-behea • **ARRASATE** • 943 79 92 76